

Uxue Alberdi: “Bertsolaritzan, esperientzia korporal eta emozional asko bizitzen dira, bizitzarako edozein eremutarako estrapolagarriak direnak”

Uxue Alberdi bertsolariak UEUk eskainitako “Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturan” izeneko udako ikastaroetan parte hartu du. Bertsolaritzan aritzeaz gain, kazetari lanetan ibilia da eta liburua ere idatzi ditu. Ikastaro honetan, emakumearen gorputzak bertsolaritzaren munduan duen lekua, jendeak honekiko duen ikuspegia eta emakume bertsolariek sentitzen dutenari buruz aritu da, benetako bizipen eta esperientziak konpartituz.

“Eta bat-batean... gorputza bertsolaritzan” da zuk eman duzun hitzaldiaren izena.

Bertsolaritzaren zein alderditaz aritu zara? Bertsolaritzaz beti hitz egiten da jardun intelektual moduan, eta egia da ariketa intelektualak pisu handia hartzen duela bat-bateko bertsolaritzan. Baina bertsolaritzari buruz egin diren ikerketa guztietan gorputza ahaztu egin dela uste dut. Gorputzik ez bagenu bezala kantatzen dugu, lepotik gora. Baina bertsotan gorputzak garrantzia ikaragarria du: hitz soilez aritzen gara eta gure gorputzaren presentzia ageri-agerikoa da, nahiz eta estatikotasunaren bitartez arreta guztia hitzera bideratzen saiatzen garen. Gorputzak, normatik ateratzen denean deitzen du atenzioa eta, zentzu horretan, emakume bertsolarion gorputzak transgresoreak dira bertsolaritzan, "gorputz neutrotik", "normaletik" urruntzen baitira. Emakume belaunaldi desberdinak modu diferentean erantzun diote euren gorputzak bertsolaritzan suposatzen zuen transgresioari, batzuek ezkutatuz eta besteek gorputza agerian jarriz bere kontraesan guztiekin. Horri buruz aritu naiz. Emakume gisa geure gorputzak bizi izan duen ikusezintasuna, jorrazteko dauzkagun erronkak, sortzen zaizkigun kontraesanak... izan ditut hizpide.

Esperientziak kontatu dituzu. Zein motatakoak? Pertsonalak dira guztiak? Zein modutan izan daitezke baliagarriak parte-hartzaileentzat? Bertsotara aplikatutako teoria feminista, zenbait gogoeta eta hainbat esperientzia kontatu ditut, batzuk neureak eta beste asko bertso-lagunenak. Bertsolaritza oso eremu interesgarria da hitzezkoa, bat-batekoa eta jendaurrekoa delako. Bat-batekotasunak, politikoki zuzena denetik aparte, geure subkontzientea agerian jartzera garamatza sarri. Hitzezkoa denez diskurtsoa sortzeko eta hedatzeko balio du: maiz iritzi publikoaren bozgorailu izan daiteke bertsolaria, besteetan iritzi sortzaile, inoiz transgresore... Eta jendaurrekotasunak iritzi publikoarekin aurrez aurre jartzen gaitu beti: bertsolariak uneoro daki zerk funtzionatzen duen, zerk emozionatzen duen, zerk egiten duen grazia, zer den pertinentea... Termometroa jartzen du beti bertsolariak, eta era berean hitza bere esku du jendeak espero duen horri modu efektistan edo ausartagoan erantzuteko. Jabekuntza ariketa handia eskatzen du bertsolaritzak: hitza hartzea, iritzia ematea, eztabaidatzea, mikrofonoa hartzea, plaza erdira ateratzea... Esperientzia intelektual, korporal eta emozional asko bizitzen dira bizitzako edozein eremutarako estrapolagarriak direnak. Orain dela hilabete batzuk bertso-eskola feminista jarri dugu martxan Ainhoa Agirreazaldegik eta biok eta parte-hartzaileekin ikasi dugu bertsotako esperientziekin ia emakume guztiak (eta gizon asko) identifikatzen direla alde zuzeneko moldez, ispilu ona dela.

"Gorputza, gorpuzkerak eta gorputzaldiak" aipatzen dituzu zure hitzaldian. Honen harira, zure gorputzak, emakume izateak inoiz sortu al dizu konfiantza falta oholtzaren gainean?

Emakume gorputza eraikuntza oso bat da, eta eraikuntza horrek norberari eragiteaz gain publikoari ere eragiten dio. Ni emakume modura eraiki naute eta hala eraiki dut neure burua: umetatik balore batzuek neureganatzeko, rol batzuek betetzeko, jarrera batzuek, gorpuzkera batzuek neureganatzeko hezi naute, eta horretan trebatu naiz, gehienetan inkontzienteki. Esango nuke emakume guztiok hasi garela bertsotan neutroak ginela pentsatuz, baina oholza leku ezin hobea da gure eraikuntzaz eta gizarteak gutaz espero duenez jabetzeko. Zergatik jartzen dizkigute "emakumeei buruzko gaiak" emakumeei bakarrik? Zergatik eskatzen zaie gizonei politikaz kantatzeko? Zergatik jartzen gaituzte emakumeok desiratu eta gizonak desiratzaileroletan? Zergatik sentitzen naiz erosoago bakarkako lanetan puntu erantzunetan baino? Zergatik eskatzen didate saio guztietan nire amatasunaz kantatzeko eta Andoni Egañari ez? Zergatik ematen dit lotsa zenbat kobratzen dudan esateak (eta zergatik uzten diot prezioa esateko ardura gizonezko bertsolariari)? Zergatik egiten dira emakumez osatutako saioak martxoaren 8an eta azaroaren 25ean bakarrik? Emakume bezala izan dudan eta kolektiboki dugun eraikuntzaz jabetzeak, kontzientzia feministak, gauza asko ulertzeko bidea eta eraldaketarako tresnak eskaini dizkit, eta oholzak esperimenezko gune aparta.

Emakume bertsolari baten irudia izateko beharra sentitu al duzu noizbait, inspirazio modura? Zentzu honetan, uste duzu zu hasi zinen momentuko egoera eta gaur egun hasten ari diren neska bertsolari gazteen egoera berdina dela? Maialen Lujanbiok sarritan aipatu izan du askotan saioa emakume bakarra izateak emakume guztien ahotik kantatu beharraren sentsazioa dakarrela. Askotan "saioa emakumea" izaten gara, bakarra, eta badirudi emakumeen ordezkartzean garrantzitsua kantatzera. Horrek ardura eta karga sortzen du, bai baitakigu gu garela mikrofonoa daukagun, gure ahotsa entzunaraz dezakegun emakume bakarrak, eta zenbait gauza ez direla esango guk esaten ez baditugu. Gutxiagotasun egoerak nolabait kolektiboan pentsatzera garrantzitsua. Pixkanaka gero eta gehiago dira bi edo hiru emakume saioak, eta plazan kantitatez gora goazen heinean singularitateak ere definitzen doaz. Era berean, erreferenteak ere ugartzen doaz. Beti esan izan dugu bertsolaritzan amonarik ez dugula izan, ama bakarra izan dugula (Maialen), eta ahizpa oso gutxi. Transmisio oso pobrea izan dugu emakume artean. Zorionez, kontzientzia feministak transmisio horren garrantzia erakutsi digu. "Gu" sendoa eta "ni" askeak behar ditugu, zenbat eta gehiago hobe. Plazetan emakumeak ugartuz joan ahala emakume bakoitzak gainean duen karga arindu egingo da.

Bertsolaritzaz gain, literatura ere, ezagutzen duzun mundu bat da. Uste duzu bi alor hauen bidez gizarteak duen emakumearen gorputzaren irudia aldatu daitekeela, pixka bat bada ere?

Uste dut lehenbizi gure eraikuntzaz jabetu behar garela, emakume izatea zer den jorratu eta garatu behar dugula. Gure sexua nola eraiki den historikoki eta sozialki, nola eraiki diren gure gorputzak eta emozioak, zein botere-harremanetan gauden kateatuta, zenbateraino daukagun barneratuta ikasitako hori. Generoa eraiki egiten dela onartzen badugu bakarrik deseraiki ahal izango dugu. Gorputza ez baita haragia edo irudia bakarrik; gorputza emozioak dira, gorputzaren bidez boterea ezartzen da eta gorputzak memoria handia du. Desioa, beldurra, haserrea, plazera, errepresioa... gorputzean daude, eta politikoki eraikitzen dira.

Inoiz, pentsatu al duzu gai hau (emakumearen gorputzaren ikuspegia) literaturaren bidez modu zuzenean jorratzea? Uste dut, kontzientzia feminista hartzen hasi nintzenetik beti dagoela presente. "Aulki-jokoa" eleberrian bortxaketa, emakumeen gorputz zaharrak, gerretan emakumeek jasaten duten gorputzaren bidezko bortxakeria, haurren sexualitatea... jorratu nituen oso modu korporalean. Udazkenean kaleratuko dudan ipuin-liburuan ere gorputza erdi-erdian dago, gorputza agertzen da guda-zelai eta askabide bezala.

Mari Luz Esteban Galarza: “Kultur tradizio, mito eta ohituren berrirakurketak behar ditugula argi dut, ez bakarrik emakumeen irudia aldatzeko, euskaltasunaren inguruan ere aukera alternatiboak aurkitu ahal izateko”

Tesi batetik ideia hartuta, UEUko **Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturan udako ikastaroan parte hartu du Mari Luz Estebanek. Bere hitzaldiaren izena Gorputzak Euskal Kulturaren. Ikuspegi berrien bila izan delarik. Gorputza eta generoaren azterketa egiten saiatu dira bertaratu diren emakumeak eta bere helburuetako bat, bere antropologia lanetan eta generoaren inguruko ikasketetan ikasitakoa euskal kulturara egokitzea izan da. Euskal kulturak orain arte izan duen zentzua problematizatuz, ondoren azterketa egiteko. Sei lagunen elkarrizketatetik ateratako “bertarakotze” ideia hartuta euskal kulturara egokitu diren emakumeen bizipenetatik hasi da Mari Luz Esteban Galarza antropologian doktorea eta medikuntzan lizentziatua.**

Ikuspegi berrien bila zatoz hitzaldira. Zein izan da orain artekoa?Euskal kulturaren ikerketan ohikoak izan diren ikuspegietatik harago joateaz hitz egin dut, bai teoria feministak baita gorputzaren eta emozioen antropologiak ere eskaintzen dizkiguten planteamendu teoriko eta metodologikoak baliatuz.

Azken hamarkadetako teoria feministan, genero kontzeptuaren eta emakume eta gizonen arteko mugen ezegonkortze prozesuan murgilduta gaude nahiz eta “emakume” izendatuak diren pertsonen egoera menpekoa hauteman eta salatu.

Era berean, “euskal” eta “euskaltasun” kontzeptuak ere ezegonkortzeko ahaleginaz hitz egin dut, euskal komunitatearen errealitatea aitortuz baina euskal kulturaren irudi mitiko, estatiko eta uniformearen kontra eta (euskal) identitate bizituen alde.

Horretarako, jendearen jardute ezberdinei begiratu behar diegu, praxi hori sortzen den testuinguru sozial, ekonomiko eta politiko zehatzak bistatik galdu barik. Eta jarduteen analisia esaten dudanean, gorputz eta emozioekin zerikusia duten praktikez ere ari naiz. Analisi hau euskararen/hizkuntzan enfasi gehiegi ez jartzeko ere erabil daiteke eta euskaltasuna modu zabalago eta konplexuago antzemateko.

Adibide xume gisa, 60. hamarkadan Euskal Herrira etorri ziren emakume etorkinen adibidea jarri dut: emakume horiek askotan elikadura eta jantziak baliatu zituzten “hemengo” bihurtzeko. Beraien burua “euskalduntzat” izan ala ez, asko eta asko bertakotu ziren aztertzeke dauden jardute ugariren bidez, beraien seme-alaben errotzea ere ahalbidetuz.

Emakumeen gorputzen analisi plural hori, beste aldetik, euskaltasuna berrizendatzeko bide bat izan daitekeela argudiatu dut.

Nola irudikatzen da gaur egun euskal kulturaren emakumearen irudia? Askotan euskaldun izatea indarrarekin eta sendotasunarekin lotu ohi den era berean, emakume eta gizonen artean bereizketa zorrotza egin ohi da, indarra gizonekin eta sendotasuna emakumeekin lotuz.

Bi kontzeptu horien berrikuspenaren alde egin dut euskaltasunaren irakurketa berrien beharra azpimarratuz.

Beste aldetik, Euskal Herrian bizi diren emakumeen arteko ezberdintasunei eta emakume eta gizonen arteko antzekotasunei ere begiratu behar zaiela defendatuko dut.

Azken urteetako ahaleginek beren fruitua ekarria al dute? Hots, lortu al dugu emakumearen irudia aldatzea? Baiezkoa bada, zeri edo zeni esker? Ukaezina da gaur egun emakumeak askoz presenteago daudela arlo publikoan eta kulturgintzaren arlo guztietan, nahiz eta gaur gaurkoz gizonen taldeek botere izugarria edukitzen jarraitu eremu gehienetan.

Gainera, emakumeek eta feministek egindakoa ez da beti jendartearen edo kulturgintzaren erdigunean kokatzen, zerbait apartekoa izango bailitzan.

Hala ere, oraindik, emakumeen ikusezintasuna nabaria da: ikusten ditugunean ere, emakumeak, gizonak baino gehiago, kolektibo moduan aurkeztuak izan ohi dira, ez banan-banan eta izen propioarekin; eta gainera, emakumez hitz egiten denean, emakumeei sozialki esleitzen zaizkien eginkizunak azpimarratzeko ere balio izaten da.

Nola irudikatzen du emakumeak emakumearen gorputza euskal kulturaren? Ez nuke jakingo nola erantzun galdera hau. Esango nuke ez dugula informazio nahikorik jakiteko nola irudikatzen duten beraien gorputza ez emakumeek ezta gizonen ere. Beste aldetik, galdera horri erantzuteko esparruka egin beharko genuke analisia: nola ikusten duten beraien gorputza emakume bertsolariek edo emakume kirolariek edo emakume...?

Ikastaro honen amaieran ziur asko erantzunen bat emateko jantziago egongo gara.

Kultur tradizioa, ohitura, barneratutako rolak ... emakumearen irudia aldatzeko oztopo besterik ez dira? Kultur tradizio, mito eta ohituren berrirakurketak behar ditugula argi dut, ez bakarrik emakumeen irudia aldatzeko, euskaltasunaren inguruan ere interpretazio eta aukera alternatiboak eta konplexuagoak aurkitu ahal izateko eta gaur egun dugun jendartearen beharrian eta errealitateei hobeki egokituz.

Irudiak, formak eta koloreak irakaskuntzako tresna gisa erabiliz

Irudimen handiz beteta hasi dira aurten UEUk eskaintzen dituen 41. Udako Ikastaroak. Izan ere, “Eskuekin pentsatuz, emozioak irudikatzen” Udako Ikastaroa jasotzeko aukera izan dugu Miriam Peña eta Eider Eibarren eskutik. Biak dira Arte Ederretan lizentziatuak eta literatura eta irudia lotzen diren esparruetan ibili dira, Eider alde batetik haur eta gazte literatura ilustratzaile bezala eta Miriam “Letra eta irudiaren arteko harremana Álbum ilustratua” ikerketa tesiarekin. UEUko Arte Saileko arduradunak ere badira. Ikastaro praktikoa honetan irudiaren alde ludikoaz jarduten ari dira. Irudiak, formak eta koloreak osatutako irakaskuntzako tresna gisa erabiltzea. Emozioak plazaratzeko helburuarekin, baliagarri izan daitezkeen tresna eta baliabideak eskaintzen dabilta..

Gaur egungo heziketa moldeetan espresio artistikoa nola baloratzen da? Egia esan gu ez gara haur hezkuntzako irakasleak eta ez dakigu oso ondo klaseetan zer gertatzen den, baina bai ikusten duguna jendea baliabideen bila etortzen dela da. Adibidez gaur komentatu dugun gauzetako bat izan da ikus-alfabetizazioa ez dagoela alfabetizazio arruntaren maila berdinean. Hau da, maila ezberdinetan lantzen direla, eta ondorioz haurrak jasotzen dutena ez dela parekoa.

Zer gertatzen zaigu hazten garen heinean? Txikitan genuen bat-batekotasuna galdu eta kulturak edo gizarteak baldintzatutako forma adierazpenetan mugatzen gara? Alde batetik ikus-hizkuntza oso sendoa ez daukagulako gerta daiteke, orduan aukera pertsonalak egiteko ez dago oso landuta. Txikitan ez gara epaituak sentitzen, ez daukagu lotsarik, espontaneoak gara. Baina hazten garen heinean, gizartearen presioagatik taldera egokitu nahi gara, bakarrik ez sentitzeko. Beraz, marrazki edo irudi-hizkuntza landu gabe dugunez, heldua, umea edo gaztea sentitzen da ez dela adierazpen horiek egiteko gai eta alde batera uzten du. Aldiz, gai direnak jarraitu egiten dute.

Emozioak adierazteko baliabide eta teknikak geureganatzea ze ekarpen egin dakiguke? Nola bideratuko ditu baliabide horiek irakaskuntzan? Ikastaroan egin ditugun ariketa bakoitzarekin koloreez osatutako hiru kodigo erabili ditugu. Gorria alde batetik, bakoitzari sortzen digun pasioa, momentu horretan zer sentitzen dugun adierazteko, berdea klasean nola uste dugun aplikatu genezakeela eta horiarekin ze oztoporekin topatu garen hori egiteko, adibidez azaltzeko zaila iruditu zaigun zerbait. Baliabideak anitzak dira; ikasle batek adibidez “azaldu ezin diren gauzak azaltzeko” adierazi du, guk irtenbide bat bilatu dezakegu irudiaren bidez edo klaseari hasiera emateko marrazkiaren bitartez saia gaitzke. Klasean horri buruzko debatea sortzea lortu dugu.

Helduek hurrekin alderatuz irudiekiko pertzepzio ezberdina dute, garrantzitsua da hezitzaileentzat irudi eta objektuen formak eta konposaketaren analisisa egitea? Guretzat interesgarria da jolasaren bidez hurbiltzea. “gorrotoa” bezalako kontzeptuak azaldu behar badira adibidez. Klasean ariketa bat egin dugu, gorrotora heltzeko maitasunetik hastea erabaki dugu, dado-joko baten bitartez eta azkenean zerbait marrazten bukatu dugu baina jolasaren bidez hasi gara. Gure ustez haurrak ulertu behar ditugula uste dugu, ulertu behar ditugula sentitzeko horretan bere lekua dagoela. Halere uste dugu helduaren ikuspuntu batetik ume batengana heltzea zaila dela. Erak eta erak daude eta badago jendea oso ondo konektatzen dakiena, baina guk mundu guztiak erabiltzeko moduko baliabideak eman nahi ditugu.



udako
euskal unibertsitatea

Ikastaran baliabide plastikoetatik aparte emozioak kanporatzeko objektuak, materialak eta jolasa izango dituzue oinarri bezala. Zertan ezberdintzen dira? Marrazteko zailtasunak dituzten pertsonekin aurki gaitzke, horren haritik, imanekin egiteko zenbait ariketa planteatzen ditugu. Toki batetik bestera pasatu daitezkeen eta itsatsi daitezkeen elementuak dira, teknika hau errazagoa suertatzen da boligrafoa hartu beharrean. Dena ez daukagu zertan marraztu eta zertan asmatu, gauza asko eginda daude.

Horregatik ekarri ditugu 40 ipuin, baliabide horiek bertan daudelako. “ Zergatik uste duzu protagonista gorria dela?” kodigo horiek ulertzen baditugu errazagoa da, ipuinen bitartez edo beste material batzuen bitartez heldu gaitzke ezagutza horretara. Pertsonak ez dauka marraztu beharrik. Ikastaroko beste ariketetako bat ipuinak sortzea izan da. Ondoren lego bidez eraikitzea, 3 dimentsioak erabiltzea istorioak eraikitzeke helburuarekin. Beste bat marrazketaren bidez txotxongilo batzuk sortzea bizitasuna emateko eta 3. dimentsioa jorratzeko. Azkenean kodigo ezberdinak erabiltzen dira helburu berdinerako, jendeari baliabide eta teknika ezberdinak eskaintzeko desioarekin. Adibidez pertsona bati imanen teknikak ez dio balio baina agian ipuinak balioko diote, gauza da abaniko zabal bat ematea eta bakoitzarentzat baliagarri dena hartzea.

2013ko Uztailaren 2a asteartea

Eskuekin pentsatuz, emozioak irudikatzen

9:00-13:00/15:00-17:00

-Gaiak:

Iruditik hirugarren dimentsioa, objektua ezagutzen.

- Objetuaren islada gizartean: Objektua irudi moduan, hurrei bideratutako objektuen analisisa eta ezagutza. Haurrengan izan dezaketan eragina. Solasaldia
- Talde dinamika: Objektua emozioen azalpen baliabide gisa.
- Materialen sinbologia: Esanahiak eta lan prozezuak. Material ezberberdinekin emozio desberdinak adieraziz.
- Lego Dinamika: jolasa hezkuntza baliabide gisa: sormen prozesu eraikitzailea, emozioen adierazle.
- Harreman dutako beste hainbat proiektuen ezagutza. Baliabide didaktikoak.

-Irakasleak:

- Miriam Peña Zabala. Arte Ederretan Lizentziatua, EHUko Arte Ederretan Tesiaren 4.urtean "Letra eta irudiaren arteko harremana Álbum ilustratuan" izenburuko lanarekin. UEUKidea.
- Eider Eibar Zugazabeitia. Arte Ederretan lizentziatua. Haur eta gazte literatura ilustratzailea. UEUKidea.

Gorputza eta generoa euskal kulturean eta literaturan

09:00-10:30

Emakumeen gorputzak ariketa fisikoan. (didaktikoa)

Irakaslea: Maria Teresa Vizcarra Morales. EHUko irakaslea.

10:30-12:00

Gorputz jipoituak genero indarkeriaren sinedoke. (didaktikoa)

Irakaslea: Gema Lasarte Leonet. EHUko irakaslea.

12:30-14:00

Euskal musika larrutuz: gorputz adierazpenak eta gorputz irudikapenak euskal musikan. (esperientziak)

Irakasleak: Iratxe Retolaza Gutierrez. Euskal Filologian lizentziatua, EHUko irakaslea. Idazlea eta aldizkari eta egunkarietako kolaboratzailea. UEUko Literatura saileko sailburua.

Itsaso Gutierrez Retolaza. Musikaria

16:00-17:00

Kuiar? Arraro xamar, bitxi bat. (audiovisuala)

Irakaslea: Ainhoa Güemes Moreno. Kazetaria.

17:00-18:00

Generoarekin jolasean. Praktika bibentziala. (tailerra)

Irakaslea: Ainara Artetxe Azkueta. EHUko irakaslea.



udako
euskal unibertsitatea

Nabigatu Lego NXT robotekin: abante!

9:00-14:00

-Gaiak:

- Zer da robot bat?
- LEGO NXT kaxa.
- Programazio-ingurunea: NXC lengoaia.
- Mugikortasuna eta Nabigazioa.
- Sentsoreak.
- Atzeraelikadura: sentsore eta eragileak batera lanean.
- Kontrol-sistemak.
- Amaierako praktika: nabigazio atazak

-Irakasleak:

- Aitzol astigarraga Pagoaga. Bigarren hezkuntzako irakaslea eta informatikaria. Robotika eta Sistema Autonomoak taldeko kolaboratzailea. UEUko informatika saileko kidea.
- Elena Lazkano Ortega. EHUko Informatika fakultateko irakaslea, Informatikan doktorea eta Robotika eta Sistema Autonomoak taldeko kidea. UEUko informatika saileko kidea.
- Ekaitz Jauregi. EHUko ikerlea, Robotika eta sistema Autonomoen elkarteko kidea.

Transmedia kontakizuna, komunikazio esperimentuak

09:00-11:00

Zuloak

Irakasleak: Eider Rodriguez eta Arrate Rodriguez. Idazleak

11:30-12:00

Transmediaz ari garela

Irakaslea: Edorta Arana. UPV/EHUko irakaslea. UEUKidea.

12:00-13:30

- Itzalen sua. Irakasleak: Fernano Morillo. Azpeitia, 1974) Filosofian lizentziatua eta zientzia zalea. Hogeita hamar liburutik gora argitaratu ditu hamar urte pasatxotan: gazte literatura, thriller zientifikoak, dibulgazioa, biografiak... 2011 an argialetxe propioa sortu zuen (Gaumin).

Xanti Rodriguez. Bizitza osoan argazkilaritzaren munduan aritu-eta, azken urteotan 3Dko infografiak argazki errealekin nahasten dabil. European zehar profesionalentzako kurtsoak ematen ditu, eta nazioarteko sari ugari irabazi ditu.

- Danbaka. Irakaslea: Iker Barandiaran. Kazetaria eta musika eragilea.
- Astra Gernika. Irakaslea: Leire Lopez. Astra Koordinadorako kidea

15:30-17:00

Korrika

Irakasleak: Libe Mimenza Castillo. UPV/EHUko ikertzailea.

Bea Narbaiza. UPV/EHUko irakaslea.

Iñako Gurrutxaga. Eitb.com-eko arduraduna



udako
euskal unibertsitatea

Irakaskuntzarako antzerki teknikak: landu sormena, komunikazioa eta talde-

estrategia

9:00-13:00/15:00-17:00

-Gaiak:

- Komunikazioa gerta dadin oinarritzko arauak eta egiteko moduak: entzutea, errespetua, mezua, igortzea...
- Antzerkia zein dramatizazioaren osagaiak: Pertsonaiak, gatazka, espazio eta denbora, erritmoa, gaia, gatazkaren ebazpena, entzumena, errespetua, norbere eta bestearen kontzientzia, jolasa.
- Pertsonaiak eraikitzeko baliabideak.
- Antzerkia sortzeko baliabideak.
- Sormenen behaketarako estrategiak.

-Irakaslea:

- Izotz Garcia Garcia. Haur Hezkuntzako irakaslea eta "Estudis de teatre Berty Tobias (Lecoq)" Goi mailako Antzerki eskolan titulaturia (Bartzelona).

Ikastaroak jarraitzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI41](#)

**Informazio gehiago eta matrikula:
www.ueu.org**